



## PORTUGALETEKO ESTABLEZIMENDUEN IREKIERA BERRIETARAKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO UDAL PROGRAMA 2019

### PORTUGALETEKO UDALAREN MERKATARITZA SAILA

#### Xedea

**Establezimenduak berritzeko eta modernizatzeko lanak** sostengatzea. Hala, herrian negozio berriak irekitzea sustatuko da.

#### Onuradunak:

**Portugaleten kalera jotzen duten establezimenduak** dituzten merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzuetako enpresa txikiak, eskaera aurkezteko orduan jarduera ekonomikoan aritzen direnak, Ekonomia-Jardueren gaineko Zergan **gehienezko antzinatasuna urte 1ekoa dutelarik**.

Enpresaren jarduera nagusiak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkion talde edota idazpurueto baten barruan egon behar du. Talde edota idazpuruak honako hauek dira:

- 64.atala (647.3 eta 647.4 izan ezik) } Txikizkako merkataritza
- 65. atalala (655 izan ezik) }
- 671, 672 eta 673 atalak – Jatetxeak, Kafetegiak eta Tabernak
- 69. atala (692 izan ezik)- Konponketak
- 97.atala (974 eta 979 izan ezik) – Zerbitzu pertsonalak

#### Diruz lagun daitezkeen proiektuak

Merkataritza-lokalen barruko eta kanpoko aldeak egokitzeko lanak, mugikortasun urriko herritarrei sarbidea errazteko oztopo arkitektonikoak kentzeko berritze-lanak, segurtasun- eta irisgarritasun-neurriak ezartzea, makineria elektronikoa edo mekanikoa, altzariak eta merkataritzako ekipamendua, ekipamendu informatikoak, softwarea, STak, kutxa erregistratzaileak eta barra-irakurgailuak.

**Onartutako gutxieneko inbertsioa 700 eurokoa** da. Ez da inola ere diruz lagunduko ez merkataritzako lokalik ezta garraiobide- elementurik ere erostea. *Leasing* edo *renting* bidezko ekipamendua ere ezin izango da eskuratu.

#### Diru-laguntzaren zenbatekoa

Portugaleteko Udalak inbertsio onargarriaren % **30 diruz lagunduko du gehienez establezimenduko eta urteko 2000 euro direlarik**.

Inbertsio onargarriaren gaineko aurreko ehuneko **areagotuz joan daiteke** baldin eta establezimenduak ondorengo inguruabar hauetako bat egiaztatzen badu:

**-Bost (5) puntu gehigarri** baldin eta Renova programan parte hartu duela edo parte hartuko duela egiaztatzen badu. Halaber, Udalak sektoreari zuzendu dion Prestakuntza Planaren barruko hiru jardueratan gutxienez parte hartu badu.

**-Hiru (3) puntu gehigarri** baldin eta herriko **merkatari-elkarteren batekin loturaren** bat duela egiaztatzen badu.

Diru-laguntzaren ehuneko ezin izango da inola ere izan onartutako inbertsio osoaren % 35 baino gehiago izan.

#### Inbertsioaren betekizunak

**2018ko azaroaren 1etik 2019ko urriaren 31ra bitartean** eginiko **inbertsioak** diruz lagunduko dira. Elementu berriak izan behar dira, enpresak berak egin ez dituenak eta Portugalete udalerrian kalera jotzen duten establezimenduetan kokatuak.

#### Eskaerak egiteko epea

**2019ko urriaren 31ra arte** edo funtsak agortu arte. Informazioa eta eskaera-eredua tokiotan egongo da eskuragarri: **Portugaleteko Udalaren Erregistro Orokorrean, Merkataritzako Bulego Teknikoan eta Herritarren Arretarako Bulegoan**. Ondoko webguneetan **ere egongo da: [www.portugalete.org](http://www.portugalete.org) eta [www.portugaletecomercial.org](http://www.portugaletecomercial.org)**.